#edukaEuskadi

# Jasangarritasunerako Hezkuntzarako Euskadiko IV.Jardunaldiak

“Hezkuntza eta jasangarritasuna etorkizunera begira”

# IV Jornadas de Educación hacia la Sostenibilidad de Euskadi

“Educación y sostenibilidad hacia el futuro”

## EGITARAUA

**2015eko azaroaren 26-28**

Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoko U.E.

**BILBAO**

www.ingurumena.net

NATURAL 100%


EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y POLÍTICA TERRITORIAL

BFA DFB

Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

ingurugela 25 URTE

# BEHARREZKO EZTABAIDA BAT

Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Hezkuntzaren Hamarkada amaitu ondoren, etapa berri baten aurrean gaude, eta horretan, honako hauek finkatuko dira funtsezko elementu gisa: erakunde eta eragile sozialen sareko lana, sare sozialak, jasangarritasunerako hezkuntzaren integrazioa administrazioen politiketan, gaitasunen garapena, gazteen protagonismoa eta mobilizazioa, trebatzaileen prestakuntza, toki-erakundeen inplikazioa Erkidegoan oinarri duten programetan, etab.

Testuinguru horretan, **Jasangarritasunerako Hezkuntzako Euskadiko IV. Jardunaldiak** agertoki ezin hobea izango dira, gaur egun arte egindakoa baloratzeko, dituen indargune eta ahulezien inguruko hausnarketa egiteko, aurrera egiteko bideak igartzeko, Euskadiko Jasangarritasunerako etorkizuneko Hezkuntza Estrategia aurkeztu eta aztertzeko, esperientziak elkartrukatzeko eta etorkizuneko konpromisoak hartzeko.

Jardunaldiak, oro har, jasangarritasunerako trantsizio-prozesuetan eta, zehazki, jasangarritasunerako hezkuntzan interesa duten eta horrekin harremana duten pertsona, elkarte, enpresa eta erakundeentzat antolatu dira. Jardunaldi hauen eduki zabalean, honako arlo hauetan dihardutenek dute protagonismoa: plangintza estrategikoa, irakaskuntza eta prestakuntza, aholkularitza eta trebakuntza, erakunde eta enpresen erantzukizun soziala, gizarte-mugimendu ekologistak, garapenekoak, generokoak, bakezaleak, etab.

# JARDUNALDIEN HELBURUAK

- Esperientziak elkartrukatzea eta eztabaida sustatzea, jasangarritasunerako hezkuntzaren eremuan izan diren azken ekitaldi garrantzitsuek ezarritako ildoetatik abiatuta.
- Praktikan antzemandako ahulezia eta indarguneei buruzko hausnarketa egitea eta datozen urteetarako jarduera-ildoak proposatzea.
- Euskadiko Jasangarritasunerako etorkizuneko Hezkuntza Estrategia aurkeztu eta aztertzea.

# INFORMAZIO OROKORRA

## EGOITZA

Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoko U.E.
Rafael Moreno "Pitxitxi",  3
Bilbao, Bizkaia




## NOLA HELDU

Metro Bilbao: www.metrobilbao.eus
1. edo 2. lineak. San Mames geltokia.

## IDAZKARITZA TEKNIKOA

IHOBE S.A.
**eventos@ihobe.eus**
Jardunaldiek iraun bitartean, Idazkaritza Teknikoa egoitzaren sarrerako mahaian egongo da (beheko solairua).
**Arreta-ordutegia:**
- Osteguna, 26 – 15:30 - 19:00
- Ostirala, 27 – 09:00 - 19:00
- Larunbata, 28 – 09:00 - 13:30

## AKREDITAZIOA

Ostegunean, azaroaren 26an, jaso ahal izango dira 15:30etik aurrera, Idazkaritza Teknikoaren mahaian.
Jardunaldietara doazenek akreditazioa ikusgai eraman beharko dute jardunaldien egun guztietan.

## BERTARATZE EGIAZTAGIRIA

Formatu digitalean bidaliko dira, izena ematean adierazitako helbide elektronikora.

## KAFEA HARTZEKO ETENALDIA ETA LUNCHA

Izen-emateak barne hartzen ditu programan adierazitako kafeak eta luncha. Ezarritako orduan zerbitzatuko dira kafetegian eta posterrak erakusteko korridorean. Gogoan izan leku horietara sartzeko akreditazioa ikusgai eraman behar duzula.

## ALDIBEREKO INTERPRETAZIOA

Saio guztietan, lantaldeen bileretan izan ezik, aldibereko interpretazio-zerbitzua emango da (ES>EU/EU>ES). Saioak izena ematean adierazitako hizkuntzan emango dira.

Interpretazioak entzuteko gailuak akreditazioen mahaian banatuko dituzte. Hargailuak hartzeko beharrezkoa izango da NANa uztea.

## LAGUNDU JARDUNALDIETAN

Jardunaldien helburua kontuan hartuta, elementu grafikoetarako eta agiriak inprimatzeko material birziklatuak edo berrerabilgarriak erabili dira. Horrenbestez, lagundu jardunaldiaren amaieran programa, akreditazioa eta lanyard-a bilketa-puntuetan utzita. Eskerrik asko!

## GIZARTE PROGRAMA

- **Osteguna, azaroaren 26a.**
  **19:45-20:45**
  Harrera Bilboko Udaletxean.



- **Ostirala, azaroaren 27a.**
  **19:00-20:00**
  Bisitaldia Zazpi Kaleetara.



## LANTALDEAK

Jardunaldietan, **5 lantalde** osatuko dira, osoko saioetan jorratutako gaietan sakontzeko.

- Jasangarritasuna politiketan integratzea (aldaketa sistemikoa). ***Artelatz.***
- Jasangarritasuna erakundeen kulturan integratzea (ikuspegi globala). ***Galemys.***
- Hezitzaileen eta aldaketa-eragileen gaitasunak indartzea. ***Ortzadar.***
- Gazteak gaitzea eta ahalduntzea. ***Arazi.***
- Jasangarritasuna tokiko esparruan bultzatzea. ***Prometea.***

Izena ematean aukeratu beharko da lantaldea eta ezingo da aldatu. Horrenbestez, bakoitzak bere taldera joan beharko du programa behar bezala bete dadin. **GARRANTZITSUA**: Lantaldea hautatzen denean, hizkuntza ere aukeratu beharko da: euskara edo gaztelania.

## POSTERRAK

Posterrak azaroaren 26, 27 eta 28an erakutsiko dira Bilboko Ingeniarien Eskolan (jardunaldien egoitza).
Erakundeak prestatutako tokietan baino ez dituzte posterrak jarriko. Panel guztiak 2015eko azaroaren 26ko –osteguneko– 14:00ak baino lehen egongo dira jarrita.
Egileek posterrak ahoz aurkeztuko dituzte; horrenbestez, horretarako prestatutako tokian egon beharko dira. Hona hemen ordutegia: osteguna (17:30-18:00), ostirala (11:30-12:00; 14:30-15:00, eta 16:30-17:00) eta larunbata (10:45-11:15).



# EGITARAUA

## OSTEGUNA, AZAROAREN 26a

**15:30-16:00** **Bertaratutakoen harrera eta dokumentazioaren banaketa.**

**16:00-16:30** **Irekiera.**
Ingurumen eta Lurralde Politikako Saila, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Eusko Jaurlaritza.

**16:30-17:30** **Hitzaldia: "Etorkizun jasangarrirako hezkuntzaren erronkak".**
**Javier Benayas**. Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Ekologia irakaslea. Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Konferentziako Jasangarritasun Batzordearen idazkari exekutiboa.

**17:30-18:00** Etenaldia. Kafea. Posterrak.

**18:00-19:00** **Mahai-ingurua: "Estrategiak eta politikak"**
Koordinatzailea: **Ángel Cantera**. Zuzendaria. Gipuzkoako Ingurugela.
- UNESCO Etxea. **Arantza Atxa**. Zuzendaria.
- Bizkaiko Foru Aldundia. **María Uribe**. Ingurugiro zuzendari nagusia.
- Eusko Jaurlaritza. Ingurumen eta Lurralde Politika Saila. **Alexander Boto**. Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren zuzendaria.

**19:45-20:45** **Bilboko Udaletxearen harrera.**

## OSTIRALA, AZAROAREN 27a

**09:00-10:30** Lantaldeak.

**10:30-11:30** **Hitzaldia: "Jasangarritasunerako Hezkuntzako hamar urte eta etorkizunerako proposamenak".**
Aurkezpena: **Miren Aguirreazkuenaga**. Bizkaiko Ingurugela.
**Daniella Tilbury**, University of Gibraltar. Garapen Jasangarrirako Hezkuntzaren Hamarkadako ebaluazio-taldearen presidentea (UNESCO).

**11:30-12:00** Etenaldia. Kafea. Posterrak.

**12:00-12:15** **"Jasangarritasunerako hezkuntza EAEn" liburuaren aurkezpena.**
**Asun Fernández**, **José Manuel Gutierrez**. Bizkaiko Ingurugela.

| | |
|---|---|
| 12:15-13:30 | **Mahai-ingurua: "Hezkuntza formala eta ez formala, sinergiak".** Koordinatzailea: **Jasone Aldekoa**. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Eusko Jaurlaritza.<br>- Hezkuntza formala: **Josu Etxaburu**. Zuzendaria. IES Elorrio BHI.<br>- Unibertsitatea: **Iratxe Amiano**. Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU).<br>- Ekipamenduak: **Josu Larruskain**. Ortzadar. |
| 13:30-14:30 | Luncha. |
| 14:30-15:00 | Posterrak. |
| 15:00-16:30 | Lantaldeak. |
| 16:30-17:00 | Etenaldia. Kafea. Posterrak. |
| 17:00-18:00 | **Mahai-ingurua: "Komunikabideak eta sareak".** Koordinatzailea: **Matxalen Sotillo**. Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU).<br>- Komunikabideak: **Francisco Góngora**. El Correoko kazetaria.<br>- Sare sozialak: **Agustín Bastida**. ESenRED. Madrid.<br>- Komunikazioa Ingurumen Hezkuntzan: **Jesús de la Osa**. CEAM. Zaragoza. |
| 19:00-20:00 | **Ibilbidea Bilboko alde zaharretik** |

## LARUNBATA, AZAROAREN 28a

| | |
|---|---|
| 09:30-10:45 | Lantaldeak. |
| 10:45-11:15 | Etenaldia. Kafea. Posterrak. |
| 11:15-12:00 | Lantaldeen ondorioak aurkeztea. |
| 12:00-13:00 | **Hitzaldia: "Larrialdi ekologikoa. Jarduteko garaia da".**<br>**Federico Mayor - Zaragoza**. Cultura de Paz Fundazioa. Madril. |
| 13:00-13:30 | **Amaiera-ekitaldia.**<br>Ingurumen eta Lurralde Politika Saila, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Eusko Jaurlaritza. |